

**ERREPORTAJEA**

Gau Beltza

ARGAZKIAK: EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Izuaren ospakizuna



1. ZER DA GAU BELTZA?

Urriaren 31ren bueltan ospatzen den jaia da Gaba Beltza, Gau Beltza edo Arimen Gaua. Antzina, herrietako gazteek, izara bat soinean zutela, baserrietako arbiak eta kalabazak lapurtzen zituzten. Herritarrak beldurtzen zituzten, kalabazei ahoak, begiak eta sudur zuloak eginda eta barruan kandela bat sartuta. XX. mende bukaerara arte ospatu zen jaia Euskal Herrian, eta, gaur egun, jaia berrasmutzen ari dira hainbat herritan.



2. NONDIK DATOR OHITURA?

Hasieran, udaren amaiera eta neguaren hasiera ospatzeko egun bat zen Gau Beltza. Izan ere, pertsonak urtaroei oso lotuta bizi ziren lehen, uza ezinbestekoa baitzuten bizirik irauteko. Kristautasuna hedatu zenean, ordea, jaiari kutsu erlijiosoa ematen saiatu ziren, eta santuak eta hildakoak gurtzeko eguna bihurtu zen. Gaur egun, hildako senide eta lagunak omendu eta gogoratzeko eguna bihurtu da, baina Euskal Herrian antzinako ohiturak berreskuratzen ari dira pixkanaka.

Zuek ere ospatuko duzue Gau Beltza? Bidali zuen argazkiak mantangorri@berria.eus helbidera, eta datozen asteetan argitaratuko ditugu!

4. UNITATE DIDAKTIKOA

Gau Beltzari buruzko unitate didaktiko bat sortu du Euskaltzaleen Topaguneak Aiaraldeko Faktoriarekin elkarlanean, eguna haur eta gazteekin lantzeko baliabideak emateko asmoz. «Inguruarekiko eta arbasoen ohiturekiko

lotura mantentzea» da Gau Beltzaren helburuetako bat, Ainhua Luz Euskaltzaleen Topaguneko kultur eta aisialdi teknikariaren arabera. Ospakizunarekin lotutako ariketak proposatu dituzte, adinaren arabera banatuta. Hauek dira horietako batzuk:





GAZTAINEN TAILERRA (HAUR HEZKUNTZA). Antzina, euskal herriarrek hildako senide eta lagunei eskaintzen zizkieten gaztainak, Ariaren gauaren bueltan. Hori gogoratzeko, gaztainerkin lotutako tailer bat proposatu dute unitate didaktikoan: hasteko, basora irten eta gaztainerkin bila joango dira haurrak, eta garaian garaiko uzta ezagutarazteko baliatuko dute txangoa. Behin gaztainak bildu ondoren, tenperarekin margotuko dituzte gaztainak, horiekin lepokoak edo gelarako apaingarriak egiteko.



ANTZARA JOKOA (BIGARREN HEZKUNTZA). Euskal kulturari lotutako pertsonaia mitologikoak, euskal errituak eta inauteriak oinarritutako antzara joko bat ere prestatu dute. Bertan, kalabaza da protagonista nagusia, eta, kalabaza bat dagoen lauki batean eroriz gero, hurrengo kalabazara egingo du jauzi jokalaria. Horrez gain, proba gehiago gehitu daitezke, hala nola lauki jakin batzuetan Gau Beltzarekin lotutako abestiak abestea eta beldurrezko aurpegiak jartzea.

www.gaubeltza.eus

Gaiari buruz gehiago jakiteko, webgunea bisitatu. Unitate didaktikoa ere bertan dago eskuragarri.



KALABAZEN TAILERRA (LEHEN HEZKUNTZA) Kalabazak dira Gau Beltzaren ikurretako bat. Izan ere, Gau Beltza ospatzen zen herrietan, haurrek eta helduek inguruko baratzeetatik lapurtzen zituzten kalabazak eta arbiak, gero ikara eragiteko. Are gehiago, nekazari batzuek bertan uzten zituzten ale batzuk, haurrek eraman zituzten. Ohitura hori berrasmatzeko, kalabazak lapurtu edo erosi beharrean, haurrak kalabaza lortzera bultzatzeko proposatzen du unitate didaktikoak ariketaren bidez, tokiko nekazaritza ezagutzeko: baratzeak non dau-den ikusi, kalabazaren landarea ezagutu... Ondoren, kalabazak hustu, burezur forma eman eta kandela bat barruan jarrita aldean eraman edo nonbait jartzea proposatzen du, izua hedatzeko hala egiten zela gogoratuz.

3. EUSKAL HERRIAN NON OSPATZEN DA?

Hainbat herritan eta hiritan ospatzen dute gaur egun Gau Beltza: besteak beste, Galdakaon, Urduñan, Muxikan eta Artean (Bizkaia); Pasai Antxon, Iruran, Bergaran, Astigarragan eta Andoainen (Gipuzkoa); Baionan eta Hendaian (Lapurdi); eta Gasteizen.